

# TXOSTENA

## KONTRATAZIO ESPEZIFIKOKO ESKAINTZA

### IKERKUNTZA UNITATEKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKO-TEKNIKOA

---

**Ikerkuntza Unitateko Fakultatibo Espezialista Mediko-teknikoa** lanpostu bat betetzeko izendapen bat eskainiko zaie, posta elektronikoa erabiliz harremanetarako, **Gipuzkoako Barrutian** izena emandako **2021eko kontratazio-zerrenda luzeetako** kideei.

Era berean, 2021eko kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera egin duten baina oraindik zerrenda horietan sartuta ez dauden pertsoneri ere bidaliko zaie eskaintza hau.

Prozedura hori egiteko, *Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 23. artikuluari jarraitzen zaio, 2023ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez onartutako aldaketekin.* (Osakidetzaren webgunean argitaratutako akordioa, aldi baterako kontratazioari dagokion atalean: [Aldi baterako kontratazioa - Profesionalak - Osakidetza \(euskadi.eus\)](https://www.euskadi.eus/aldibaterako-kontratazioa-profesionalak-osakidetza))

#### **PROZEDURA**

---

##### **A.- Ezaugarriak**

- Lanpostu funtzionala: **Ikerkuntza Unitateko Fakultatibo Espezialista Mediko-Teknikoa**
- Kategoria: Ikertzailea
- Beharrezko titulua: **A1 lanbide-taldean eskatzen diren guztiak.**
- Izendapen mota: Lanpostu hutsa
- Destinoa: Debagoieneko Ospitalea Arrasate (Gipuzkoa)
- Lanaldi osoa. Goizeko txanda.
- 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarekin.
- Berehala lanean hasteko.
- **Kontuan hartuko diren merezimenduak:**
  - Prestakuntza arlo sanitarioan edo biosanitarioan.
  - Prestakuntza kudeaketa-arloetan.
  - Prestakuntza eta esperientzia osasunaren ekonomiaren arloan.
  - Informazio- eta programazio-sistemetakoz egagutzak.
    - Oracle Analytics Services-eko egagutzak.
    - Osabide Globala eta E-Osabide-ko egagutzak.
    - R Statistics-eko (programazio estatistikoko lengoia) egagutzak.
  - Analisi estatistiko/matematikorako prestakuntza.
  - Real World Data datuetan oinarritutako ikerketa-esperientzia.

##### **B.- Eskabidea**

**Eskatutako egagutza espezifikoa dituzten hautagai guztiek eskatu ahal izango dute izendapen hori betetzea, eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez badute ere.** Kasu horietan, esleipenerako lehentasuna Osakidetzako zuzendari nagusiaren 3/2016 Instrukzioan ezarritakoa izango da. Instrukzio horren bidez, lanpostu hutsak, erreserbatuak eta ordezkapenekoak betetzeko prozedura ezartzen da lanpostuak derrigortasun-data iraungita duen euskarako

hizkuntza-eskakizuna duen kasuetan. Instrukzio horren arabera, inork ez badu eskatutako hizkuntza-eskakizuna (2. HE), honako hau izango da esleitzeko lehentasuna:

- 1.– Eskatutako hizkuntza-eskakizunaren aurrekoa (1. HE) duten pertsonak.
- 2.– Hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta ez duten pertsonak.

Osakidetzak ezagutza espezifikoak egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko eskatu ahalko du, baita lanpostuaren eginkizunei buruzko proba espezifiko bat egiteko edo, hala badagokio, elkarrizketa pertsonal bat egiteko ere.

**Ez bazaizu izendapena interesatzen** edota ez badituzu betetzen eskatutako ezagutza espezifikoak, **ez** duzu inolako justifikaziorik aurkeztu behar. Ez zaizu zigorrik ezarriko zure zerrendan.

Nolanahi ere, **esleitutako izendapenari ezin zaio uko egin**; hau da, behin izendapena esleituta uko egiten bazaio, esleipenduna kontratazio-zerrendetako izendapen luzeen zerrendatik kanpo geratuko da, 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41. artikuluan ezarritako epeetan.

### **C.- Epea**

Hamar egun balioudun iragarkia aldi baterako kontratazio-zerrenden web-orrian argitaratzen denetik aurrera.

Izendapen honetan parte hartu nahi baduzu eta deialdian eskatzen den ezagutza espezifikoaren baldintzak betetzen badituzu, mezu elektronikoa bidali behar duzu **zure izena, abizenak, NANA eta harremanetarako telefonoa** adieraziz **2021lp-lc@osakidetza.eus** helbidera, gaian "**IKERKUNTZA**" adierazita.

Egun eta ordu horretatik aurrera ez da eskabiderik onartuko.

Era berean, **ez da** onartuko adierazitako helbide elektronikoa ez den beste helbide batera bidalitako eskabiderik, epe barruan bidaltzen badira ere

Ezagutza espezifikoak agiri bidez alegatu beharko dituzu, eta agiri horiek **eskaeraren mezu elektronikoan erantsi**, salbu eta Osakidetzako Curriculum Vitae aplikazioan dagoeneko **akreditatuta eta balidatuta** badaude.

Osakidetzak ezagutza espezifikoak egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko eskatu ahalko du, baita lanpostuaren eginkizunei buruzko proba espezifiko bat egiteko edo, hala badagokio, elkarrizketa pertsonal bat egiteko ere.

### **D.- Destino-esleipena**

Izendapena pertsona bati baino gehiagori eskaintzen zaionez, eskaintza hau jasotzeak, ezagutza espezifikoaren baldintza betetzeak eta interesa agertzeak **ez du esan nahi lanpostua esleitu**ko zaizunik.

Esleipena egiteko, zorrozki jarraituko zaio kontratazio-zerrendetan duzun hurrenkerari, baldin eta ezagutza espezifikoak badituzu, honako irizpide hauen arabera eta betiere kontuan hartuta *Osakidetzako zuzendari nagusiaren 3/2016 Jarraibidean ezarritakoa (horren bidez, lanpostu hutsak, erreserbatuak eta ordezkapenekoak betetzeko prozedura ezartzen da*

*lanpostuak iraungitako derrigortasun-data duen euskarako hizkuntza-eskakizuna duen kasuetan):*

1. – Gipuzkoako Barrutian 2021eko kontratazio-zerrenda luzeetan dauden pertsonak, bakoitzak zerrendan duen hurrenkeraren eta 3/2016 Jarraibidearen arabera.

2. – Gipuzkoako Barrutian 2021eko kontratazio-zerrenda luzeetan izena emateko eskaera egin duten baina oraindik zerrenda horietan sartuta ez dauden pertsonak, zerrendan duten hurrenkeraren eta 3/2016 Instrukzioaren arabera.

**Izendapena esleitzen badizute,** Zuzendaritza Nagusiko Langileen Zerbitzua jarriko da zurekin harremanetan.